

**EAEKO GIZARTE-AURREIKUSPEN  
OSAGARRIARI BURUZKO TXOSTENA**

**FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA  
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA**

**2019.  
URTEA**



## AURKIBIDEA

<b>1. BGAE-AK 2019KO EKITALDIAN .....</b>	<b>1</b>
1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera .....	1
1.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen balantze-zifra .....	2
1.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen kopurua .....	3
1.3.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen adina .....	3
1.3.2. Enplegu Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen adina.....	4
1.3.3. Banakako Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen adinak.....	4
1.4. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak.....	5
1.4.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenak .....	5
1.4.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen ekarpen-maila.....	6
1.4.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak .....	7
1.4.4. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen prestazioak kobratzeko modua.....	11
1.4.5. Enpleguko BGAEen prestazioak kobratzeko modua .....	12
1.4.6. Banakako BGAEen prestazioak kobratzeko modua.....	12
1.5. Erreskateak Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetan .....	13
1.6. Enpleguko BGAEek ematen duten babes-mailari buruzko ikuspegi orokorra...	13
1.7. Laburpena, generoaren ikuspegitik.....	14
<b>2. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA.....</b>	<b>16</b>
2.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera .....	16
2.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera .....	16
2.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen bazkide kopuruaren bilakaera .....	16
2.4. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpen eta prestazioen bilakaera .....	17
2.4.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenen bilakaera .....	17
2.4.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen prestazioen bilakaera .....	18
2.5. BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera.....	18
2.6. BGAEen ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera .....	19
<b>3. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN DIMENTSIOA.....</b>	<b>20</b>
3.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen dimentsio ekonomikoa .....	20
3.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen tamaina, haien ondarearen arabera .....	21
3.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen tamaina, haien kideen arabera.....	21
3.4. Sustapen bateratuko planak.....	22



<b>4. BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA</b> .....	<b>23</b>
4.1. Banakako modalitateko Aurreikuspen Planen errentagarritasuna .....	23
4.2. Enplegua modalitateko Aurreikuspen Planen errentagarritasuna .....	24
4.3. Orientazio inbertitzailea, Aurreikuspen Planetako bazkideen adinaren arabera	25
4.4. Orientazio inbertitzailea, Enpleguko Planen bazkideen adinaren arabera.....	27
4.5. Orientazio inbertitzailea, Banakako Planetako bazkideen adinaren arabera .....	28
4.6. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen inbertsioen egitura.....	28
4.7. Enpleguko BGAEen inbertsioen egitura.....	29
4.8. Banakako BGAEen inbertsioen egitura .....	30
4.9. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek EAEn egiten duten inbertsioa .....	30
4.9.1. Enpleguko BGAEek EAEn egiten duten inbertsioa.....	30
4.9.2. Banakako Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek EAEn egiten duten	
inbertsioa .....	31
4.10. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek EAEn zor publikoan egiten duten	
inbertsioa.....	31
4.11. BGAEek inbertitzen duten EAeko enpresa nagusiak.....	32
4.12. Administrazio-gastuak .....	32
<b>5. ASEGURU-JARDUERARIK EGITEN EZ DUTEN ARAUBIDE BEREZIKO BGAE</b>	
<b>BEREIZI GABEAK</b> .....	<b>34</b>



## 1. BGAE-AK 2019KO EKITALDIAN

### 1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera

2019an, Euskal Autonomia Erkidegoan 115 BGAE zeuden. Horietatik, 73k Gizarte Segurantzarekiko prestazio osagarriak ematen dituzte Aurreikuspen Planen bidez, eta gainerako 42ek, Aurreikuspen Planik gabeko BGAEak osatzen dituztenek, hainbat arrisku mota estaltzen dituzte, hala nola suteak, heriotzak eta bestelakoak.

#### 1. koadroa

BGAE	Modalitatea	Erakunde kopurua	%/guztira
Aurreikuspen Planekin	Enplegukoa	43	37,39%
	Banakakoa	28	24,35%
	Elkartua	2	1,74%
<b>Guztira</b>		73	63,48%
Aurreikuspen Planik gabe	Heriotzak	30	26,09%
	Suteak	1	0,87%
	Beste batzuk	11	9,56%
<b>Guztira</b>		42	36,52%
<b>GUZTIRA</b>		115	100,00%

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

1. koadroan, helburu estatistikoaren ondorioetarako, «Aurreikuspen Planik gabeko BGAEak» epigrafearen barruan sartuta dauden 42 BGAEak oso ondare-dimentsio txikiko erakundeak dira, beheko koadro honetan argi ageri denez. 1. eta 2. koadroetako Aurreikuspen Planik gabeko BGAEei buruzko datuak 2018koak dira, 2019ko ekitaldiari dagozkionak ez baitaude oraindik eskuragarri (ikus [5. ASEGURU-JARDUERARIK EGITEN EZ DUTEN ARAUBIDE BEREZIKO BGAE BEREIZI GABEAK](#) apartatua).

#### 2. koadroa

BGAE	Modalitatea	Erakunde kopurua	Balantze Zifra (€)	%/guztira
Aurreikuspen Planekin	Enplegukoa	43	14.529.256.346	54,25%
	Banakakoa	28	12.207.987.817	45,58%
	Elkartua	2	22.846.515	0,08%
<b>Guztira</b>		73	26.760.090.678	99,91%
Aurreikuspen Planik gabe	Heriotzak	30	13.229.247	0,05%
	Suteak	1	4.036.016	0,02%
	Beste batzuk	11	6.559.412	0,02%
<b>Guztira</b>		42	19.838.301	0,09%
<b>GUZTIRA</b>		115	26.783.915.353	100,00%

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen Planik gabeko BGAEen balantze-zifraren ehunekoak huskeria da, BGAE guztien balantze-zifraren guztizkoarekin alderatuz, eta, gainera, arrisku jakin batzuk estaltzen dituzte; ez dute inolaz ere pentsioen sistema publikorako pentsio osagarrien izaera. Hots, BGAE horiek ez dira oro har bigarren edo hirugarren zutabe modura izendatzen denaren tresnak egituratzen dituzten erakundeak.



Txosten honetan, beraz, Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzten 73 BGAEak izango ditugu aztergai nagusiki, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikuspen osagarriaren aldetik dagoen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko, aurreikuspen osagarritzat ulertzen badugu pentsio-sistema publikoaren osagarri diren pentsio-sistemak bideratzeko (nagusiki erretiro-pentsioak) EAEn dauden erakundeen multzoa. Gainerako Erakundeak ez dira garrantzitsuak ondare-bolumenari dagokionez, baina zeregin sozial garrantzitsua dute.

Horregatik, txosten honen amaieran, bazkidearen ondasunetan eragindako kalte eta galerak, dela ohiko etxebizitzan, ukuiluetan, biltegietan, pabiloietan, zerrategietan, labeetan, errotetan, etxeko ostilamenduan, lan-tresnetan, ganaduan, uztetan, basoetan, ontzietan, ibilgailuetan edo bere lan-jarduerari edo ogibideari lotutako beste edozein ondasunetan, estaltzen dituzten BGAEei berariazko apartatu bat eskainiko zaie.

BGAEak, izaera eta bazkideen artean dagoen lotura kontuan hartzen bada, honela sailkatzen dira: Banakakoak, Enpleguak eta Elkartuak. Enpleguak BGAEak 43 dira. Horietatik 39k enpresa dute Aurreikuspen Planen jardun-eremua, eta 4 BGAE, berriz, sektorialak dira, haien Aurreikuspen Planek enpresa multzo bat hartzen baitute barruan: BGAE batek, Mondragon korporazioko kide diren kooperatibak; beste batek, Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuei heltzen dieten enpresak; eta bi BGAEk, sektore publikoko langileak (batek, Foru eta Toki Administrazio langileak, eta besteak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoak).

Bestalde, banakako 28 BGAEetatik, 6k 300 milioi eurotik gorako balantze-zifra dute, eta 25.000 bazkide baino gehiago.

## 1.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen balantze-zifra

### 3. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Balantze Zifra (€)	%/guztira
Enpleguak	43	14.529.256.346	54,29%
Banakakoa	28	12.207.987.817	45,62%
Elkartua	2	22.846.515	0,09%
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>26.760.090.678</b>	<b>100,00%</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreikuspen Planak dituzten BGAE baten batez besteko balantze-zifra 366 milioi euro zen 2019an. Banakako BGAEen kasuan, batez besteko balantze-zifra 436 milioi euro zen, eta, Enpleguakoen kasuan, 338 milioi euro. Ikus daitekeenez, Banakako BGAEen batez besteko balantzea Enpleguakoen bano handiago da.



### 1.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen kopurua

#### 4. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Gizonezko bazkideak		Emakumezko bazkideak		Guztira
		Kop.	%/guztira	Kop.	%/guztira	
Enplegukoa	43	282.505	57,06%	212.615	42,94%	495.120
Banakakoa	28	348.827	54,41%	292.339	45,59%	641.166
Elkartua	2	1.240	85,22%	215	14,78%	1.455
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>632.572</b>	<b>55,60%</b>	<b>505.169</b>	<b>44,40%</b>	<b>1.137.741</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2019an, 1.137.741 pertsona zeuden Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen barruan. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, gizonak bazkide kopuru osoaren % 56 ziren; emakumeak, berriz, % 44, aurreko ekitaldiaren antzera.

2019an, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek batez beste 15.585 bazkide zituzten. Banakako BGAEek batez beste 22.899 bazkide zituzten; Enplegukoek, berriz, 11.514. Banakako BGAEetako batez besteko bazkide kopurua Enplegukoetakoaren bikoitza da.

#### 1.3.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen adina

#### 5. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%/guztira
0-20 urte	2.187	1.778	3.965	0,30%
21-25 urte	7.350	5.638	12.988	0,99%
26-30 urte	19.141	17.116	36.257	2,76%
31-35 urte	37.675	31.837	69.512	5,29%
36-40 urte	66.110	54.460	120.570	9,17%
41-45 urte	101.759	80.613	182.372	13,87%
46-50 urte	110.596	85.878	196.474	14,95%
51-55 urte	111.107	91.121	202.228	15,38%
56-60 urte	103.654	92.032	195.686	14,89%
61-65 urte	77.606	66.403	144.009	10,96%
65 urtetik gora	90.050	60.354	150.404	11,44%
<b>Guztira</b>	<b>727.235</b>	<b>587.230</b>	<b>1.314.465</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, Aurreikuspen Planetako kideen batez besteko adina 49 urtekoa da (2018ko batez besteko adina baino urte bat gehiago). Batez besteko hori berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Kolektibo horren % 37k 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitartekoen artean, kolektiboaren % 51 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoen artean, % 12. Bi kasuetan banaketa antzekoa da emakumeen eta gizonen artean.



### 1.3.2. Enplegu Aurreikuspen Planak dituzten BGAEtako bazkideen adina

#### 6. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%/guztira
0-20 urte	1.174	837	2.011	0,41%
21-25 urte	5.290	3.835	9.125	1,84%
26-30 urte	12.381	11.037	23.418	4,73%
31-35 urte	21.038	17.378	38.416	7,75%
36-40 urte	32.757	25.387	58.144	11,74%
41-45 urte	45.879	33.193	79.072	15,96%
46-50 urte	44.841	32.007	76.848	15,51%
51-55 urte	40.191	30.683	70.874	14,31%
56-60 urte	33.224	28.994	62.218	12,56%
61-65 urte	24.251	19.639	43.890	8,86%
65 urtetik gora	21.530	9.894	31.424	6,34%
<b>Guztira</b>	<b>282.556</b>	<b>212.884</b>	<b>495.440</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreko puntuan bezala, 65 urtetik beherako kolektiboa bakarrik kontuan hartzen bada, Enpleguko Aurreikuspen Planetako bazkideen batez besteko adina 47 urtekoa da, hau da, bazkide guztien batez bestekoa baino bi urte gazteagoa. Batez besteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Kolektibo horren % 45ek 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitarteko artean, kolektiboaren beste % 45a biltzen da, eta 60 urtetik gorako artean, gainerako % 10a.

### 1.3.3. Banakako Aurreikuspen Planak dituzten BGAEtako bazkideen adinak

#### 7. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%/guztira
0-20 urte	1.013	941	1.954	0,24%
21-25 urte	2.060	1.803	3.863	0,47%
26-30 urte	6.759	6.078	12.837	1,57%
31-35 urte	16.628	14.458	31.086	3,80%
36-40 urte	33.260	29.054	62.314	7,62%
41-45 urte	55.678	47.364	103.042	12,60%
46-50 urte	65.487	53.790	119.277	14,59%
51-55 urte	70.720	60.405	131.125	16,04%
56-60 urte	70.266	63.016	133.282	16,30%
61-65 urte	53.230	46.754	99.984	12,23%
65 urtetik gora	68.321	50.433	118.754	14,53%
<b>Guztira</b>	<b>443.422</b>	<b>374.096</b>	<b>817.518</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Berriz ere, azterketan 65 urtetik beherako kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, Banakako Aurreikuspen Planetan parte hartzen dutenen batez besteko adina 50 urtekoa da, hau da, bazkide guztien batez bestekoa baino urte bat zaharragoa. Batez besteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Kolektibo horren % 31k 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitarteko artean kolektiboaren % 55 da, eta 60 urtetik gorako artean, berriz, % 14.



Aurreko datuen arabera, Enpleguko BGAEetan, pertsonak adin txikiagoarekin sartzen dira, eta horrek ahalbidetzen du pertsona horien ekarpenen eta kapitalizazioaren ibilbidea luzeagoa izatea, nahikoa diren pentsio osagarriak izateko.

#### 1.4. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak

##### 8. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Ekarpenak		Prestazioak	
		Zenbatekoa (€)	%/guztira	Zenbatekoa (€)	%/guztira
Enplegukoa	43	346.730.808	44,73%	442.133.317	66,93%
Banakakoa	28	428.135.413	55,24%	217.954.801	32,99%
Elkartua	2	246.855	0,03%	503.852	0,08%
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>775.113.077</b>	<b>100,00%</b>	<b>660.591.971</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetan, kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira 8 koadroan ageri diren datuak: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, ezintasun iraunkorra, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, Aurreikuspen Planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko egiten diren ekarpen eta prestazioak, hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak, zenbait prestazio mediko, etab. Enplegurako BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ezin daitezke har bigarren edo hirugarren zutabeen multzokotzat.

Bestalde, erreskateak ere ez daude jasota taulan, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzea ez baita prestazio bat.

##### 1.4.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenak

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenen zenbatekoa 775.113.076,59 € izan zen; horrek esan nahi du % 6,59ko igoera izan dela aurreko ekitaldiko zenbatekoarekin alderatuta. Aurreko ekitaldiaren antzera, genero-ikuspegitik, sistemari egiten zaizkion ekarpenen kopuru osoaren % 60 gizonek egin dituzte (433.401.800,45 €); emakumeek, berriz, ekarpenen % 40 egin dituzte (293.806.025,85 €). Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 4 txikiagoak direla.





## 1.4.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEtako bazkideen ekarpen-maila

### 9. koadroa

Ekarpenak	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%/guztira
300 €-raino	66.455	62.123	128.578	24,70%
301-900 €	79.867	67.070	146.937	28,22%
901-1.800 €	60.689	34.991	95.680	18,38%
1.801-3.000 €	42.799	31.720	74.519	14,31%
3.001-4.500 €	19.145	11.979	31.124	5,98%
4.501-6.000 €	21.619	15.314	36.933	7,09%
6.001-7.200 €	924	406	1.330	0,26%
7.201-8.000 €	1.630	582	2.212	0,42%
8.001-24.250 €	1.412	834	2.246	0,43%
.250 € baino gehiago	687	418	1.105	0,21%
<b>Guztira</b>	<b>295.227</b>	<b>225.437</b>	<b>520.664</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Bakarrik hartzen badira kontuan 2019an ekarpenak egin dituzten pertsonak, 900 € baino gutxiagoko ekarpenak egin zituzten % 53k. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 57 zen; gizonen kasuan, berriz, % 50 izan zen. 1.800 eurotik gorako ekarpenak kolektiboaren % 29k egin zituen. Enpleguko BGAEtan, kolektiboaren % 33k 1.800 eurotik gorako ekarpenak egin ditu (kolektiboaren % 35 gizonen kasuan eta % 29 emakumeen kasuan).

Kontuan izan 1.800 euroko zenbateko hori urteko 30.000 euroko soldata gordinaren % 6 dela. 2006an onartutako Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planean jasotzen denez, urteko soldata gordinaren % 6ko urteko ekarpenak egin behar dira 37 urtez, erretiroa hartu aurreko soldataren % 20ren baliokidea den pentsioa lortzeko.

Aurrekoaren arabera, 2019ko abenduaren 31n ekarpenak egiten ari ziren pertsonen egindako ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.488,70 € izan zen (1.540,18 gizonen kasuan eta zertxobait gutxiago, 1.421,28 €, emakumeen kasuan).

Enplegua modalitateko BGAEtan, ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.776,57 € zen (1.827,96 € gizonen kasuan eta zertxobait gutxiago, 1.690,47 €, emakumeen kasuan). Gaur egun Enpleguko Aurreikuspen Planetan sartuta dauden pertsonen egindako ekarpenen batez besteko zenbatekoa bat etorriko litzateke Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planean ezarritako helburuarekin. Dena den, ez da ahaztu behar bazkide guztien heren batek soilik egiten duela 1.800 eurotik gorako ekarpena.

Bestalde, banakako BGAEtan, ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.315,70 € zen (1.336,29 € gizonen kasuan eta zertxobait gutxiago, 1.292,35 €, emakumeen kasuan).

2017. urteari buruz eskuragarri dauden azken datu fiskalen arabera, erdia baino gehiago, Aurreikuspen Planetarako ekarpenak aplikatu ziren aitortzen % 56, 30.000 eurotik beherako likidazio-oinarriak zituzten zergadunenak ziren. Kolektibo horren gastu fiskala BGAEra egindako ekarpenengatiko guztizko gastu fiskalaren % 37 izan zen. 42.000 eurotik beherako likidazio-oinarriak dituzten zergadunak kontuan hartzen badira, zergadunen ehunekoa % 80ra iristen da eta gastu fiskalaren % 64 eragin zuten. Bestalde, aitortzaileen % 10ek (56.400 eurotik gorako likidazio-oinarria dutenek) BGAEra egindako ekarpenengatiko gastu fiskalaren % 20 eragin zuten. Bestalde, PFEZaren zerga-



oinarrian izandako batez besteko murrizketa 2.000 euro izan zen 2017an, baina, batez besteko murrizketa hori bikoiztu egiten da (4.167 €) 56.400 eurotik gorako likidazio-oinarria duten aitortzaileen kasuan.

### 1.4.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

#### 1.4.3.1. Bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen GUZTIZKOA

##### 10. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretiroa	27.063	12.474	39.537	369.310.796	129.782.982	499.093.778
Ezintasun Iraunkorra	5.142	1.793	6.935	37.257.560	11.919.301	49.176.861
Mendekotasuna	13	4	17	199.265	87.300	286.565
Iraupen Luzeko Langabezia	544	382	926	2.165.328	1.349.894	3.515.223
Gaixotasun larria	28	21	49	94.929	107.277	202.206
Heriotza	4.603	15.010	19.613	23.776.724	84.540.615	108.317.339
<b>Guztira</b>	<b>37.393</b>	<b>29.684</b>	<b>67.077</b>	<b>432.804.602</b>	<b>227.787.370</b>	<b>660.591.971</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2019. urtean Aurreikuspen Planak dituzten BGAE guztiek prestazioetan ordaindutakoaren % 76 erretiro-kontingentziarekin lotuta zegoen eta ordaindutakoaren % 16 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 44 jaso zituzten, eta gizonek % 56. Bestetik, prestazio kopuru osoaren % 66 (432.804.601,61 €) gizonek jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 34 jaso dituzte (227.787.369,50 €). Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.848,26 € izan da. Baina azterketa generoaren arabera eginez gero, gizonek jasotako batez besteko zenbatekoa (11.574,48 €) emakumeek jasotakoa baino % 51 handiagoa da (7.673,74 €).

#### 1.4.3.2. Enpleguko BGAEetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

##### 11. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretiroa	17.559	6.358	23.917	260.697.217	73.186.022	333.883.240
Ezintasun Iraunkorra	4.043	1.326	5.369	28.185.683	8.157.760	36.343.442
Mendekotasuna	0	0	0	0	0	0
Iraupen Luzeko Langabezia	177	68	245	648.181	244.640	892.821
Gaixotasun larria	4	3	7	12.543	39.767	52.310
Heriotza	847	7.809	8.656	6.607.168	64.354.336	70.961.505
<b>Guztira</b>	<b>22.630</b>	<b>15.564</b>	<b>38.194</b>	<b>296.150.792</b>	<b>145.982.525</b>	<b>442.133.317</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko BGAE guztiek prestazioetan izandako gastu osotik % 76 erretiro-kontingentziarekin lotuta zegoen, eta % 16 erakundean sartutako pertsona baten



heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek. Ikus daitekeenez, Aurreikuspen Planak dituzten BGAE guztiek portaera bera dute.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 41 jaso zituzten, eta gizonen % 59. Bestetik, prestazio kopuru osoaren % 67 (296.150.792,18 €) gizonen jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 33 jaso dituzte (145.982.525,27 €). Ehuneko horiek Aurreikuspen Planak dituzten BGAE guztien kasuan lortzen ziren ehuneko antzekoak dira. Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 13.086,65 € izan zen, Planak dituzten BGAE guztiek lortzen duten zenbatekoa baino handiagoa. Azterketa generoaren arabera egiten bada, ikus daiteke emakumeek jasotzen duten batez besteko zenbatekoa (9.379,50 €) gizonena baino txikiagoa dela oraindik ere (11.575,99 €), Enpleguko BGAEen kasuan, genero-arrakala desagertzen ez bada ere, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeena baino % 40 handiagoa baita; arrakala hori zertxobait murriztu da.

#### 1.4.3.3. Enpleguko BGAE sektorialetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

##### 12. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretiroa	13.948	5.744	19.692	172.684.027	58.073.720	230.757.747
Ezintasun Iraunkorra	3.647	1.263	4.910	22.284.524	7.000.832	29.285.356
Mendekotasuna	0	0	0	0	0	0
Iraupen Luzeko Langabezia	139	67	206	478.236	239.227	717.463
Gaixotasun larria	4	1	5	12.543	5.575	18.118
Heriotza	566	4.604	5.170	3.666.752	34.032.089	37.698.841
<b>Guztira</b>	<b>18.304</b>	<b>11.679</b>	<b>29.983</b>	<b>199.126.082</b>	<b>99.351.443</b>	<b>298.477.526</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enpleguko BGAE sektorial guztiek (Lagunaro, Geroa, Elkarkidetzeta eta Itzarri) prestazioetan ordaindutakoaren % 77 erretiro-kontingentziari zegokion eta ordaindutakoaren % 13 erakundearen sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek, hau da, Enpleguko BGAE guztiek izandako portaeraren antzeko portaera dute.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 41 jaso zituzten, eta gizonen % 59. Bestetik, prestazio kopuru osoaren % 67 (199.126.082,35 €) gizonen jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 33 jaso dituzte (99.351.443,48 €). Ehuneko horiek Aurreikuspen Planak dituzten BGAE guztien kasuan lortzen ziren ehuneko antzekoak dira. Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.954,89 € izan zen, Enpleguko BGAE guztiek lortu zuten zenbatekoa baino txikiagoa. Azterketa generoaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (8.506,85 €) gizonen jasotakoa (10.878,83 €) baino txikiagoa da oraindik ere. Enpleguko BGAE sektorialen kasuan, genero-arrakala % 28ra murrizten da.



#### 1.4.3.4. Enpleguko BGAE sektorial ez publikoetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

##### 13. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretiroa	10.281	3.604	13.885	143.170.899	41.327.459	184.498.358
Ezintasun Iraunkorra	2.493	715	3.208	17.255.951	4.610.198	21.866.149
Mendekotasuna	0	0	0	0	0	0
Iraupen Luzeko Langabezia	122	34	156	411.717	111.593	523.309
Gaixotasun larria	0	0	0	0	0	0
Heriotza	295	3.195	3.490	2.521.386	30.836.492	33.357.878
<b>Guztira</b>	<b>13.191</b>	<b>7.548</b>	<b>20.739</b>	<b>163.359.953</b>	<b>76.885.742</b>	<b>240.245.695</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Erretiro-kontingentziagatiko ordainketa Enplegu-modalitateko BGAE sektorialek prestazioetan egindako guztizko gastuaren % 77 izan zen eta ordaindutakoaren % 14 erakundearen sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek.

Emakumeek prestazio kopuru osoaren % 36 jaso zuten, eta gizonek % 64. Bestetik, prestazio kopuru osoaren % 68 (163.359.952,83 €) gizonek jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 32 jaso dituzte (76.885.741,74 €). Ehuneko horiek ez dute aldakuntza nabarmenik Enplegua modalitateko BGAEetarako, osotasunean hartuta, daudenekin alderatuta.

Halaber, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 11.584,25 € izan zen, Enpleguko BGAE sektorial guztietarako lortzen den zenbatekoa baino handiagoa; izan ere, Lagunaro BGAE pentsio osagarri nahikoak ordaintzeko zehaztutako prestazio-sistema bat duen BGAE bat da. Pentsio nahikoak ordaintzeko helburu horrekin berarekin, Geroak aurreikuspen-sistema bat dauka ezarrita, eta sistema horren arabera, babestutako pertsona bakoitzaren eskubide ekonomikoa, 5 urtetik gorako maiztasuneko aldizkako errenta bihurtzean, ekitaldi bakoitzerako ezarritako «errenta sortzeagatiko zenbatekora» iristen bada, prestazioak errenta moduan jaso behar dira nahitaez.

Azkenik, azterketa generoaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (10.186,24 €) gizonek jasotakoa (12.384,20 €) baino txikiagoa da oraindik ere. Prestazioak enpleguko BGAE sektorial ez publikoetan jasotzen diren kasuetan, genero-arrakalak zifrarik txikiena du, % 22koa baita.



### 1.4.3.5. Enpleguko BGAE sektorial Publikoetako bazkideen kontingentziengatik prestazioak

#### 14. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretiroa	3.667	2.140	5.807	29.513.128	16.746.261	46.259.389
Ezintasun Iraunkorra	1.154	548	1.702	5.028.573	2.390.634	7.419.207
Mendekotasuna	0	0	0	0	0	0
Iraupen Luzeko Langabezia	17	33	50	66.519	127.635	194.154
Gaixotasun larria	4	1	5	12.543	5.575	18.118
Heriotza	271	1.409	1.680	1.145.366	3.195.597	4.340.964
<b>Guztira</b>	<b>5.113</b>	<b>4.131</b>	<b>9.244</b>	<b>35.766.130</b>	<b>22.465.702</b>	<b>58.231.831</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enplegua modalitateko sektore publikoko BGAEek (Elkarkidetza eta Itzarri) 2019. urtean prestazioetan izandako gastu osotik % 79 erretiro-kontingentziarekin lotuta zeuden eta % 7 erakundearen sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 45 jaso zituzten, eta gizonak % 55. Bestetik, prestazio kopuru osoaren % 61 (35.766.129,52 €) gizonak jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 39 jaso dituzte (22.465.701,74 €). Bi ehunekoak, emakumeen kasuan, Enpleguko BGAE sektorial guztien kasuan lortzen zirenak baino handiagoak dira. Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 6.299,42 € izan zen, Enpleguko BGAE sektorial guztietarako lortu zen zenbatekoa baino txikiagoa, Itzarriren Aurreikuspen-sistemaren heltze-maila txikiagoa delako gertatu da hori nagusiki. Azterketa generoaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (5.438,32 €) gizonak jasotakoa (6.995,14 €) baino txikiagoa da oraindik ere. Enpleguko BGAE sektorial publikoen kasuan, genero-arrakala % 29ra murrizten da.



#### 1.4.3.6. Banakako BGAEetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

##### 15. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erretiroa	9.493	6.113	15.606	108.258.460	56.509.135	164.767.596
Ezintasun Iraunkorra	1.098	467	1.565	9.070.578	3.761.541	12.832.119
Mendekotasuna	13	4	17	199.265	87.300	286.565
Iraupen Luzeko Langabezia	366	314	680	1.502.243	1.105.255	2.607.498
Gaixotasun larria	24	18	42	82.386	67.510	149.896
Heriotza	3.755	7.193	10.948	17.151.433	20.159.695	37.311.128
<b>Guztira</b>	<b>14.749</b>	<b>14.109</b>	<b>28.858</b>	<b>136.264.365</b>	<b>81.690.436</b>	<b>217.954.801</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Banakako BGAEek prestazioetan 2019. urtean izandako gastu osotik % 76 erretiro-kontingentziarekin lotuta zeuden, eta % 17 bazkide arrunt baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek. Ikus daitekeenez, Enplegua modalitateko BGAEekin gertatzen den bezala, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen, osotasunean hartuta, ia portaera bera dute.

Bestetik, prestazio kopuru osoaren % 63 (136.264.365,25 €) gizonak jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 37 jaso dituzte (81.690.436,06 €). Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 7.552,66 € izan zen, Enpleguko BGAEen kasuan nahiz Planak dituzten BGAE guztien kasuan lortu zen zenbatekoa baino txikiagoa. Azterketa generoaren arabera eginez gero, berriro ere ikus daiteke emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (5.789,95 €) gizonak jasotakoa baino txikiagoa dela oraindik ere (9.238,89 €); horrek esan nahi du Banakako modalitateko BGAEen kasuan, genero-arrakala handitu egin dela Enpleguko BGAEetan dagoenarekin alderatuta, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeena baino % 60 handiagoa baita.

#### 1.4.4. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen prestazioak kobratzeko modua

##### 16. koadroa

Planak dituzten BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasibo kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	28.880	254.276.528	8.805	734
Finantza-errenta	13.592	80.093.390	5.893	491
Kapitala	16.235	290.514.368	17.894	-
<b>Guztira</b>	<b>58.707</b>	<b>624.884.286</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Prestazioak jasotzeko moduaren arabera egiten denean azterketa -errenta aktuariala, finantza-errenta eta kapitala soilik-, Aurreikuspen Planak dituzten BGAE guztiek ordaindutako prestazioen zenbateko osoaren (660.591.971,11 €) % 38 errenta aktuarial gisa jaso da (254.276.528 €), % 12 finantza-errenta gisa (80.093.390 €) eta % 44 kapital gisa (290.514.368 €). Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 95 dira. Nabarmenezkoa da jasotakoaren erdia kapital gisa jaso dela, nahiz eta erakunde horien sozietate-helburua Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar adina osatzea izan. Portaera horrek aldatu egiten du BGAEen helburu nagusia, hau



da, prestazioak errenta gisa kobratzea, eta aldaketa hori gertatzen da, gehien bat, kapital gisa jasotako prestazioei zerga-tratamendu onuragarria ematen zaielako.

#### 1.4.5. Enpleguko BGAEen prestazioak kobratzeko modua

##### 17. koadroa

Enpleguko BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasibo kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	27.292	252.720.502	9.260	772
Finantza-errenta	3.783	36.165.208	9.560	797
Kapitala	5.630	123.451.325	21.927	-
<b>Guztira</b>	<b>36.705</b>	<b>412.337.035</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Dena den, azterketa Enpleguko BGAEen kasuan egiten denean prestazioak kobratzeko moduaren arabera, errenta aktuarial, finantza-errenta eta kapital gisa soilik, Enpleguko BGAEek ordaindutako prestazioen zenbateko osoaren (442.133.317,45 €) % 57 errenta aktuarial gisa kobratu da (252.720.502 €), % 8 finantza-errenta gisa (36.165.208 €) eta % 28 kapital gisa (123.451.325 €). Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 93 dira.

Ikus daitekeenez, Enpleguko BGAEen kasuan, kobratzeko modu nagusia errenta aktuariala da kasuen erdian baino gehiagotan, eta hori gehiago dator bat BGAEen sozietate-helburuarekin.

#### 1.4.6. Banakako BGAEen prestazioak kobratzeko modua

##### 18. koadroa

Banakako BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasibo kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	1.588	1.556.026	980	-
Finantza-errenta	9.802	43.865.345	4.475	373
Kapitala	10.592	166.622.028	15.731	-
<b>Guztira</b>	<b>21.982</b>	<b>212.043.399</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Banakako BGAEei dagokienez, berriz, % 76 kapital gisa kobratzen da; % 20 finantza-errenta gisa (2018an % 18); eta ez da % 1era iristen errenta aktuarial gisa jasotakoa. Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 97 dira. Enpleguko BGAEen portaera aztertzean ez bezala, Banakako BGAEetan gaur egun dagoen kobrantza modua ez dator bat errenta moduan gehiengoa kobratzeko lortu nahi den helburuarekin.

Aurrekoa gorabehera, azken bi ekitaldietan egiaztatu da Banakako BGAEetako bazkideak prestazioa errenta aktuarial gisa kobratzeko eskatzen hasi direla pixkanaka. Hori dela eta, aurreko koadroan ez da aipatu errenta aktuarial gisa jasotako hileko batez besteko zenbatekoa, ez baita adierazgarria, bazkide pasiboek ez dutelako prestazioa 2019. urteko hilabete guztietan kobratu.

## 1.5. Erreskateak Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetan

### 19. koadroa

Erreskateak	Enpleguko BGAEak	Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	BGAEak, guztira
<b>Kop.</b>	116 0,58%	19.960 99,39%	7 0,03%	20.083
<b>Zenbatekoa (€)</b>	2235246 1,57%	140.003.530 98,38%	63.911 0,04%	142.302.687

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAEei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die bazkideei, bai Banakako modalitatekoiei, bai BGAE Elkartuen modalitatekoiei, eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko, baldin eta hamar urte baino gehiagoko antzintasuna badute. Enpleguko BGAEek, berriz, ez dute aukerarik ematen hamar urteko antzintasuna izateagatik erreskatea jasotzeko, salbuespen iragankor batekin: BGAEei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legea indarrean sartzean erreskate-aukera hori zuten planek soilik jasotzen dute alde aurretik erabiltzeko aukera hori, eta data horretan zeuden eskubide ekonomikoengatik.

Genero-ikuspegitik, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da erreskateekin, hau da, 2019. urtean erreskatatu duten gizonen ehunekoa % 56 da; jasotako kopurua, berriz, % 61.

## 1.6. Enpleguko BGAEek ematen duten babes-mailari buruzko ikuspegi orokorra

Jarraian, ariketa teoriko bat egingo da; bertan, aurreko apartatuetan lortutako datu guztiak bilduko dira, BGAEek ematen duten babesaren nahikotasun-mailari buruzko ikuspegi orokorra izateko.

Kalkulu aktuariala Enpleguko Planen kasurako egin dugu, modalitate horretan ia ez dagoelako bikoiztasunik; nekez gertatuko da sistema borondatez kentzea eskubide ekonomikoak erreskatatuz, eta kobratzeko modu nagusia aldizkako errentak dira.

Kontuan hartuz urtean egindako batez besteko ekarpena Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planei (1.777 €) eta ulertuz ekarpenak % 1,5 igoko direla, eta honako hauek ere kontuan hartuz: ekarpen zehaztuko Enpleguko Planetan dagoen *per capita* eskubide ekonomikoa (16.500 €); 65 urtetik beherako bazkideen batez besteko adina (47 urte); Enpleguko Planen modako inbertsio-joera (errenta finko mistoa), zeinak, halaber, kalkulatzeko den erretiro-datara bitarte % 2,5eko batez besteko errentagarritasuna lortzeko aukera emango duela, hilean lortuko litzatekeen biziarteko eta itzuli beharrik gabeko pentsio iraunkorra 350 € ingurukoa izango litzateke (286 € 2019. urteko balioetan). Zenbateko hori 2019ko abenduan EAEn zegoen Gizarte Segurantzaren batez besteko erretiro-pentsioaren % 21 zen (1.409 €). Estaldura-maila hori garrantzitsutzat har daiteke. Beste era batera ikusita, pentsio osagarri horren zenbatekoa 30.000 €-ko urteko soldata gordin baten % 11 izango litzateke.





## 1.7. Laburpena, generoaren ikuspegitik

Emakumeak bazkide kopuru osoaren % 44 dira eta ekitaldiko ekarpenen % 40 egin dituzte. Horrek esan nahi du, berriz ere beste ekitaldi batean, emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, 4 portzentaje-puntu gutxiago dira bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino.

Bakarrik hartzen bada kontuan 65 urtetik beherako kolektiboa, 49 urtekoa da Aurreikuspen Planetako bazkideen batez besteko adina. Batez besteko hori berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

2019an ekarpenak egin dituzten pertsonen % 53k 900 eurotik beherako ekarpenak egin zituzten. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 57 zen; gizonen kasuan, berriz, % 50 izan zen.

2019ko abenduaren 31n ekarpenak egiten ari ziren pertsonen ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.488,70 € izan zen (1.540,18 € gizonen kasuan eta zertxobait txikiagoa, 1.421,28 €, emakumeen kasuan).

Prestazioei dagokienez, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako ekarpenen % 66 (432.804.601,61 €) gizonek jaso dituzte; aitzitik, emakumeek ekarpenen % 34 lortu dituzte (227.787.369,50 €), nahiz eta emakumeak BGAEetan sartutako pertsonen % 40 izan. Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.848,26 € izan bazen ere, gizonen jasotako batez besteko zenbatekoa (11.574,48 €) emakumeek jasotakoa baino % 51 handiagoa da (7.673,74 €).

Azterketa generoaren arabera egiten denean, ikus daiteke Enplegua modalitateko BGAEetan emakumeek jasotzen duten batez besteko zenbatekoa (9.379,50 €) gizonena baino txikiagoa dela oraindik ere (11.575,99 €), baina modalitate horretako BGAEen kasuan, genero-arrakala desagertzen ez bada ere, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeena baino % 40 handiagoa baita, ikusten da arrakala hori zertxobait murriztu dela; aitzitik, Banakako BGAEen kasuan, arrakala hori % 60 handitu da. Sektore publikoko Enpleguko BGAEen eta BGAE sektorialen kasuan, genero-arrakala % 29ra eta % 28ra murriztu da, hurrenez hurren. Horren ondorioz, prestazioak kobratzeko modu guztietan, emakumeek gizonen baino zenbateko txikiagoak kobratzen dituzte; gizonen finantza-errenta gisa, errenta aktuarial gisa eta errenta kapital gisa kobratzen dituzten prestazioak emakumeek jasotzen dituztenak baino % 34, % 27 eta % 41 handiagoak dira, hurrenez hurren.

Erreskateei dagokienez, BGAEek estaltzen dituzten gainerako kontingentzien kobrantzarekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2019. urtean erreskatatu duten gizonen ehuneko % 56koa da; jasotako kopurua, berriz, handiagoa da, % 61ekoa.

**20. koadroa**

BGAEen Gobernu Batzarreko karguak	Gizonak		Emakumeak	
	Kop.	%	Kop.	%
Presidenteak	71	84,52%	13	15,48%
Presidenteordeak	89	87,25%	13	12,75%
Idazkariak	58	69,05%	26	30,95%
Kideak	411	75,14%	136	24,86%
Beste batzuk	65	73,03%	24	26,97%
<b>Guztira</b>	<b>694</b>	<b>76,60%</b>	<b>212</b>	<b>23,40%</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreko koadroan agerian jartzen da BGAEetako Gobernu Batzarreko karguen % 77 gizonek betetzen dituztela. Ehuneko hori % 85era igotzen da Erakundearen presidentekargua betetzen duten pertsonen kasuan.

4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, betez, BGAEei aplikadakiekeen araudiak ezartzen du BGAEek ahaleginak egingo dituztela emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin Gobernu Batzarrean, Erakundeko gizonen eta emakumeen ehunekoaren proportzioan.

Horri dagokionez, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatutzat joko da sexu biek % 40ko ordezkariak, gutxienez, dutenean. Halaber, Gobernu Batzarra hiru edo lau kidek osatzen dutenean, ulertu ahal izango da ordezkariak orekatua dagoela sexu biek ordezkariak dutenean.

BGAEen eremuan, Aurreikuspen Planak dituzten Erakundeen % 30ek betetzen dituzte aurreko lerrokadako irizpideak. Bestalde, beste 8 BGAEtan betetzen da Gobernu Batzarra osatzen duten emakumeen ehuneko Erakundeko emakumeen ehunekoaren antzekoa izatea. Aurrekoa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen % 60tan ez dagoela emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua Gobernu Batzarrean.

**21. koadroa**

<b>Enplegatu kopurua</b>	
Gizonak	30
Emakumeak	66
<b>Guztira</b>	<b>96</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Euskadiko Gizarte Aurreikuspen osagarria kudeatzeko BGAEek enplegatutako pertsonen % 69 dira emakumeak.

## 2. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA

### 2.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera

#### 22. koadroa

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEak	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
Enplegukoa	45	45	0,00%	44	-2,22%	43	-2,27%
Banakakoa	35	33	-5,71%	31	-6,06%	28	-9,68%
Elkartua	3	2	-33,33%	2	0,00%	2	0,00%
<b>Guztira</b>	<b>83</b>	<b>80</b>	<b>-3,61%</b>	<b>77</b>	<b>-3,75%</b>	<b>73</b>	<b>-5,19%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen kopurua txikitu egin da pixkanaka-pixkanaka 2016-2019 aldian. Banakako modalitateko BGAEen kasuan, finantza-alorrean gertatu den fusio-prozesuak antzeko fusio-prozesua eragin du erakunde horietako bazkide sustatzaileek bultzatutako BGAEetan. Enpleguko BGAEen kopuruan murrizketa izan da BGAE batzuen bazkide babesleek hartutako erabakiengatik, beren Aurreikuspen Planak eta langileak aurretik zegoen beste BGAE batean sartzea aukeratu dutelako, eskalako ekonomiez baliatzen saiatzeko.

### 2.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen balantze-zifraren bilakaera

#### 23. koadroa

Balantze Zifra (€)	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
	24.976.018.732	25.708.104.293	2,93%	24.826.018.697	-3,43%	26.760.090.678	7,79%

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2019ko ekitaldian, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen balantze-zifra ia bi milioi eurotan handitu zen.

Kontuan izanik ekarpenekin jasotakoaren eta BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskateen ondorioz ordaindutakoaren arteko aldea ekitaldi horretan -26 milioi eurokoa izan zela, izandako igoera batik bat inbertsioen emaitza positiboagatik ulertzen da.

### 2.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen bazkide kopuruaren bilakaera

#### 24. koadroa

Bazkideak	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
Gizonak	640.085	633.829	-0,98%	635.028	0,19%	632.572	-0,39%
Emakumeak	496.037	493.262	-0,56%	500.750	1,52%	505.169	0,88%
<b>Guztira</b>	<b>1.136.122</b>	<b>1.127.091</b>	<b>-0,79%</b>	<b>1.135.778</b>	<b>0,77%</b>	<b>1.137.741</b>	<b>0,17%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2019an, 2018an gertatu zen bezala, hautsi egin da aurreko ekitaldietan izandako bazkide kopurua murrizteko joera. Joera hori ekitaldi horietan erregistratutako Banakako erakundeen integrazio-prozesuen ondorio logiko bat izan zen, eta horrek berekin ekarri du hainbat Plan integratzea. Bestetik, kontuan hartu behar da 24. koadroko datuek erakusten dutela Aurreikuspen Planak dituzten zenbat bazkide dauden guztira BGAEetan, kontuan hartu gabe pertsona bat BGAE batean edota batean baino gehiagotan dagoen. Ildo horretan, BGAEek Bazkideen Fitxategi Orokorrean informatutako datuek ahalbidetzen dute bikoiztasunak ezabatzea. BGAEen arteko bikoiztasunak ezabatzen badira, 2019ko abenduaren 31n 830.129 pertsona zeuden babestuta Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen bidez (2018. urtean 822.845 ziren).

## 2.4. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpen eta prestazioen bilakaera

### 25. koadroa

Zenbatekoa (€)	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
Ekarpenak	671.528.311	697.194.974	3,82%	727.207.826	4,30%	775.113.077	6,59%
Prestazioak	644.081.021	622.105.961	-3,41%	634.923.273	2,06%	660.591.971	4,04%
<b>Aldea</b>	<b>27.447.290</b>	<b>75.089.013</b>	<b>173,58%</b>	<b>92.284.553</b>	<b>22,90%</b>	<b>114.521.105</b>	<b>24,10%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Koadro honetan ez dira erreskateak azaltzen; izan ere, eskubide ekonomikoak aldeztu aurretik eskuratzea, BGAEei aplikatu dakiekeen araudian aurreikusitako kontingentziaren bat gertatu gabe, ez da prestazioa. Enpleguko BGAE jakin batzuen kuotak eta gizarte-prestazioak ere ez dira sartu, ez dietelako bigarren edo hirugarren zutabeen kontzeptuei erantzuten, arestian adierazi dugunez. Hau da, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen prestazioen osagarri diren prestazioak emateko Gizarte Aurreikuspeneko Planen ekarpenak eta prestazioak hartu dira kontuan.

2019. urtean, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenen bidezko diru-sarrerak % 6,59 handitu ziren aurreko ekitaldikoekin alderatuz. Azken lau ekitaldietan mantendu den joera horrek hautsi egin zuen ekarpenek 2013-2015 aldian izandako portaera negatiboa.

Dena den, aldagai horren portaera ez da homoginoa Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen modalitatearen arabera. Horixe erakusten du koadro honek.

### 2.4.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ekarpenen bilakaera

#### 26. koadroa

Ekarpenak (€)	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
Enplegukoa	275.743.185	289.303.479	4,92%	318.631.763	10,14%	346.730.808	8,82%
Banakakoa	395.130.908	407.549.035	3,14%	408.281.272	0,18%	428.135.413	4,86%
Elkartuak	934.667	342.461	-63,36%	294.791	-13,92%	246.855	-16,26%
<b>Guztira</b>	<b>671.808.760</b>	<b>697.194.974</b>	<b>3,78%</b>	<b>727.207.826</b>	<b>4,30%</b>	<b>775.113.077</b>	<b>6,59%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azterketak Enpleguko eta Banakako erakundeetan jarriko du arreta.



Ekarpenek 2019an izan duten gorakada orokorra Enpleguko BGAEei egindako ekarpenek izan duten gorakadaren ondorio da nagusiki; izan ere, gorakada hori Banakako modalitateko BGAEek lortutakoaren ia bikoitza da.

Horri dagokionez, esan behar da Enplegua modalitateko BGAEei egindako ekarpenen zenbatekoa 2014. urteko ekarpenen zenbatekoa baino txikiagoa dela oraindik ere (671.357.467,83 €). 2012. urteaz geroztik izandako ekarpenen beherakada herritarrek aurrezteko duten ahalmena mugatu duen ekonomia-krisiak eragindakoa da.

## 2.4.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen prestazioen bilakaera

### 27. koadroa

Prestazioak (€)	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
Enplegukoa	407.725.617	407.510.038	-0,05%	418.939.072	2,80%	442.133.317	5,54%
Banakakoa	235.323.413	214.293.714	-8,94%	215.696.771	0,65%	217.954.801	1,05%
Elkartuak	1.031.991	302.209	-70,72%	287.430	-4,89%	503.852	75,30%
<b>Guztira</b>	<b>644.081.021</b>	<b>622.105.961</b>	<b>-3,41%</b>	<b>634.923.273</b>	<b>2,06%</b>	<b>660.591.971</b>	<b>4,04%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azken lau ekitaldietan ordaindutako prestazioek antzeko zifrak dituzte, eta aldi horretako batez besteko zenbatekoa 640 milioi eurokoa da.

## 2.5. BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera

### 28. koadroa

Erreskateak (€)	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
		181.367.000	162.161.658	-10,59%	154.346.121	-4,82%	142.302.687

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

[1.5. Erreskateak Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetan](#) izeneko apartatuaren 19. koadroan ikusten da ia erreskate guztiak, % 98,38, Banakako Aurreikuspen Planetan egiten direla.

Prestazioen bat sortu aurretik metatutako eskubide ekonomikoak osorik edo zati batean erreskatatzeagatik sistematik ateratako guztizko zenbatekoa 142 milioi euro izan zen 2019an. Banakako BGAEen kasuan, urteko ordainketa guztien zati oso handi bat da. Hain zuzen, erreskatetan ordaindutakoa 2019an (140 milioi euro) prestaziotan ordaindutako zenbatekotik oso gertu dago (218 milioi euro). Banakako BGAEek aurretiaz itzuli zuten dirua erreskate bidez, 2019an, ondarearen % 1,15, ekitaldian egindako ekarpenen % 33, eta modalitate horretako Aurreikuspen Planek estalitako kontingentziak gertatzeagatik prestaziotan ordaindutakoaren % 64 inguru zen. Beste ikuspegi batetik ikusita, erreskateetan ordaindutako zenbatekoa prestazio eta erreskate kontzeptuengatik funtsen irteera osoaren % 39 da.

Erreskateen kopurua (partzialak eta erabatekoak) 20.083 izan zen 2019an, eta erreskateen zenbatekoa, berriz, batez beste, 7.085,73 eurokoa.

Horri dagokionez, esan daiteke eskubide ekonomikoak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua, BGAEek estaltzen duten kontingentziaren batean erori baino lehen, adierazle ona dela ikusteko zein neurritan betetzen ez den sistemaren aurreikuspen-helburua eta beste helburu batzuekin erabiltzen dela, adibidez, finantza- eta zerga-arrazoiak; neurri



batean, zerga-tratamendu abantailatsuak eragindakoa, zeina kapital gisa lortutako eskuratzeei ematen zaien aldizkako errenta gisa jasotakoen aurrean. Dena den, datuetatik ondoriozta daitekeenez, erreskateen zenbatekoa txikituz doa, nabarmen, 2014tik aurrera, eta 2019an erreskatatutako zenbatekoa, adibidez, 2014an erreskatatutakoa baino % 36 txikiagoa da, gutxi gorabehera.

## 2.6. BGAEn ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera

### 29. koadroa

Zenbatekoa (€)	2016	2017	% ± Δ	2018	% ± Δ	2019	% ± Δ
Ekarpenak (1)	671.808.760	697.194.974	3,78%	727.207.826	4,30%	775.113.077	6,59%
Prestazioak (2)	644.081.021	622.105.961	-3,41%	634.923.273	2,06%	659.854.347	3,93%
Erreskateak (3)	181.367.000	162.161.658	-10,59%	154.346.121	-4,82%	141.713.727	-8,18%
<b>Aldea (1)-(2)-(3)</b>	<b>-153.639.261</b>	<b>-87.072.645</b>	<b>-43,33%</b>	<b>-62.061.567</b>	<b>-28,72%</b>	<b>-26.454.997</b>	<b>-57,37%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak batera aztertuz gero, aipatu behar da ekarpenen bidez bildutako diruaren eta ordaindutako prestazioen eta Aurreikuspen Planetan egindako erreskateen baturaren arteko aldeak saldo negatiboa duela 2016-2019 aldirian. 2019. urtean, saldo negatibo hori % 57 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta. Murrizketa hori honela azaltzen da: alde batetik, ekarpenak prestazioak baino erritmo handiagoan hazi dira, eta, bestetik, erreskateengatik ordaindutako zenbatekoa murriztuz doa urtetik urtera.



### 3. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN DIMENTSIOA

#### 3.1. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen dimentsio ekonomikoa

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek ondare handia kudeatzen dute. Termino makroekonomikoetan adierazita, 2019ko EAeko BPGd-aren % 33,76 da (79.272.202 milako euro prezio korranteetan).

Ratio horrek aditzera ematen du BGAEek Euskal Autonomia Erkidegoan duten ezarpena eta garrantzia nabarmen handiagoak direla (ia laukoitza) pentsio-funtsek Espainian dituztenak baino, azken horien ondarea 2019an BPGd-aren % 9,35 zela eta EB-13ren\* batezbestekotik oso hurbil dagoela aintzat hartuta (% 35 inguru da).

BGAEek kudeatutako aktibo kopuru horren handiak zeregin zinez garrantzitsua ematen die finantzaren ikuspegitik.

BGAEen garrantziak behera egiten du gizarte-babesaren sisteman duten dimentsio erlatiboa aintzat hartzen badugu, finantza-dimentsioa aintzat hartu beharrean. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEei egindako urteko ekarpenen diru-sarrerak BPGd-aren % 1 inguru dira. Ehuneko hori, besteak beste, Austria, Belgika, Alemania, Italia edo Espainiak egindako ekarpenen ehunekoaren antzekoa da, % 1 inguru. Kontuan hartu behar da beste herrialde batzuetan urteko ekarpen gordinak BPGd-aren % 8,3koak direla, Suitzaren kasuan; % 8koak Australian, eta % 4 ingurukoak Herbehereetan eta Ameriketako Estatu Batuetan.

Kontuan hartuz EAeko Gizarte Segurantzaren 2019. urteko datuak, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako gizarte-prestazioei egindako ekarpenen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta gizarte-prestazioetan egindako gastua, hurrenez hurren, osatu nahi den Gizarte Segurantzaren sistema publikoak urte horretan EAEn gizarte-kotizazioen ondorioz bildutakoaren % 14 inguru eta kotizaziopeko pentsioetan ordaindutakoaren % 7 izan ziren.

#### 30. koadroa

Planak dituzten BGAEak	Mila eurotan	BPGd (%)	Gizarte Segurantza (%)
Ekarpenak	775.113	1,00%	14,00%
Prestazioak	659.854	1,00%	7,00%
Ondarea	26.760.091	33,76%	-

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAEek gizarte-babesaren diru-sarreretan eta gastuetan duten paperean dagoen horren alde handiaren interpretazioak hainbat azalpen ditu. Horien artean nabarmen daitezke sistema pribatua sistema publikoa baino gazteagoa dela edo hura bezain heldua ez dela,

\* EB-13: Herbehereak, Erresuma Batua, Finlandia, Danimarka, Irlanda, Portugal, Espainia, Italia, Alemania, Belgika, Austria, Suedia eta Frantzia.

lehenengoaren orokortze falta eta bigarrenaren unibertsaltasun ia erabatekoa, edo ekarpen-maila nahiko baxuak direla sistema publikora egindako kotizazioekin alderatuz.

### 3.2. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen tamaina, haien ondarearen arabera

#### 31. koadroa

Ondarea MM (€)	Enpleguko BGAEak			Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztira
	Sektorialak	Enpresa	Guztira			
<10	0	16	16	5	1	22
10-150	0	18	18	15	1	34
150-300	0	2	2	2	0	4
>300	4	3	7	6	0	13
<b>Guztira</b>	4	39	43	28	2	73

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Tamaina bazkide kopuruaren arabera aztertu dugunean bezala, BGAEen ondarea aztertzen dugunean ere aipatutako minifundismoa aurkitzen dugu: tamaina txikiko erakunde askok, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen ia % 82k, batezbestekoaren azpiko ondarea dute (366 milioi euro), eta tamaina handiko gutxi daude. Eta berdin gertatzen da enpleguko BGAEetan nahiz banakakoetan. BGAEen % 14k (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) ondarearen % 81 dute.

### 3.3. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen tamaina, haien kideen arabera

2019an, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek batez beste 15.585 bazkide zituzten. Banakako BGAEek batez beste 22.899 bazkide zituzten; Enplegukoek, berriz, 11.514. Banakako BGAEetako batez besteko bazkide kopurua Enplegukoetakoaren bikoitza da.

Baina nahiko handiak diren neurri horiek «minifundismo» handia ezkututzen dute BGAEen kolektiboan, batez ere Enpleguko BGAEen artean. Enpleguko BGAE gehien-gehienek, % 70k, 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 6 erakundek baizik ez du 5.000 bazkide baino gehiago (ikus 32. koadroa). Banakakoen artean tamainaren alde hori ez da hain larria; izan ere, Banakako BGAEen % 32k bakarrik dituzte 1.000 bazkide baino gutxiago, eta % 21era iristen dira 25.000 baino gehiago dituztenak.

#### 32. koadroa

Bazkide kopurua	Enpleguko BGAEak			Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztira
	Sektorialak	Enpresa	Guztira			
<250	0	9	9	3	1	13
250-1.000	0	21	21	6	0	27
1.001-5.000	0	7	7	6	1	14
5.001-25.000	0	2	2	7	0	9
>25.000	4	0	4	6	0	10
<b>Guztira</b>	4	39	43	28	2	77

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza





### 3.4. Sustapen bateratuko planak

2019. urtean 149 enpleguko Aurreikuspen Plan zeuden. Horietatik, 96 plan zehaztutako ekarpenen planak dira eta 53 zehaztutako prestaziokoak. Enpleguko Aurreikuspen Plan guztietatik, enpresa bakar batek sustatu ditu 36 plan, eta gainerako 113 enpleguko planak enpresa batek baino gehiagok sustatu ditu.

Enpresa batek baino gehiagok sustatutako enpleguko Aurreikuspen Planen barnean 13.301 enpresa daude sartuta (erakunde publikoak barne).



## 4. BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA

### 4.1. Banakako modalitateko Aurreikuspen Planen errentagarritasuna

Banakako modalitateko Aurreikuspen Plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (Aurreikuspen Planen ondarearen arabera) % 6,89 izan zen 2019an. Urte naturaleko aldi osoan indarrean egon diren Banakako modalitateko Aurreikuspen Planen errentagarritasunak Eusko Jaurlaritzaren webgunean daude argitaratuta. Sakatu [hemen](#) bertan sartzeko.

#### 33. koadroa

##### Batez besteko errentagarritasun haztatua, Banakako Aurreikuspen Planetako orientazio inbertitzailearen arabera

Errenta aldakorra	22,08%
Errenta aldakor mistoa	11,89%
Burtsa-indize bat edo errenta finkoko bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzat hartzen du	9,44%
Errendimendu aldakorreko bermatuak	6,48%
Errenta finko mistoa	6,06%
Beste batzuk	3,91%
Epe luzerako errenta finkoa	2,14%
Errendimendu finkoko bermatuak	1,83%
Epe laburrerako errenta finkoa	0,68%
<b>Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira</b>	<b>6,89%</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Kategoria desberdinen arteko banaketa irizpide hauek kontuan hartuta egin da:

- Epe Laburrerako Errenta Finkoa: Kategoria horretako Planek ez dituzte errenta aldakorreko aktiboak sartzen haien eskurako zorroan, ezta errenta finkoan oinarrituz bestelako deribatuak ere. Zorroaren batez besteko iraupena bi urtekoa edo gutxiagokoa izango da.
- Epe Luzerako Errenta Finkoa: Kategoria horretan, eskurako zorroan errenta aldakorreko aktiboak ez dituzten Aurreikuspen Planak, ezta errenta finkokoak ez diren deribatuak ere sartuko dira. Zorroaren batez besteko iraupena bi urtetik gorakoa izango da.
- Errenta Finko Mistoa: Kategoria horri atxikitako Aurreikuspen Planek haien zorroaren % 30 baino gutxiago inbertituko dute errenta aldakorreko aktiboetan.
- Errenta Aldakor Mistoa: Kategoria horretan, errenta aldakorreko aktiboetan zorroaren % 30 eta % 75 artean inbertitzen duten Planak egongo dira atxikita.
- Errenta Aldakorra: Kategoria horretan, zorroaren % 75 gutxienez errenta aldakorreko aktiboetan inbertituta duten Planak egongo dira atxikita.
- Bermatuak: Hirugarren batek emandako etekin jakin baten kanpoko bermea duten Aurreikuspen Planak dira.



Banakako Aurreikuspen Planek 2013. urtean hasitako serie historikoaren errentagarritasun hoberena izan zuten 2019an. Orientazio inbertitzaile guztiek errentagarritasun positiboak izan zituzten, baita epe laburrerako Errenta Finkoak ere. Baina akzioetarako esposizio handiagoa dutenak nabarmendu ziren; izan ere, Errenta Aldakorreko Planek % 22,08ko batez besteko errentagarritasun haztatua metatu zuten urtean, eta Errenta Aldakor Mistoko Planek, aldiz, % 11,89ko batez besteko errentagarritasun haztatua urtean.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Plan batean epe luzera eskuratzen den errentagarritasunak garrantzi erabakigarria duela metatutako azken kapitalaren zenbatekoan. Horregatik, funtsezkoa da ondo asmatzea Plan mota orientazio inbertitzailearen arabera aukeratzean, pentsio osagarri egoki bat lortu ahal izateko.

Haatik, hautaketa hori oso zaila izaten da pertsona gehienentzat. Horri dagokionez, bizi-zikloko inbertsio-estrategiak, BGAEek ongi diseinatuak, oso positiboak izan daitezke pentsio osagarri egoki bat lortzera begira.

#### 34. koadroa

Errentagarritasuna	Banakako planen kopurua
Negatiboa	19
% 0-5	115
% 5-10	44
> %10	70

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

34. koadroan ageri diren datuak urte osoan indarrean egon diren Banakako Aurreikuspen Planei buruzkoak baino ez dira; horiek zer errentagarritasun lortu duten kalkulatu da.

## 4.2. Enplegua modalitateko Aurreikuspen Planen errentagarritasuna

Banakako modalitateko Aurreikuspen Plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (Aurreikuspen Planen ondarearen arabera) % 9,27 izan zen 2019an.

Enplegua modalitateko Aurreikuspen Planen errentagarritasunak Eusko Jaurlaritzaren webgunean daude argitaratuta. Sakatu [hemen](#) bertan sartzeko.

Bestalde, lau erakunde sektorialak (kudeaketa propioa dute) Enpleguko BGAEen guztizko ondarearen % 77 dira; erakunde horien batez besteko errentagarritasuna % 9,41 izan zen 2019an. Dena den, kontuan izan behar da legediak Enpleguko erakundeei aukera ematen diela, baldintza jakin batzuk betez gero, kontabilizatzeko errenta finko negoziagarriko zorroa kostu amortizatuaren irizpidea erabiliz, eta, horrenbestez, errentagarritasun horiek ezin daitezke alderatu zuzenean Banakako erakundeenekin, zorro hori merkatu-balioaren arabera kontabilizatu behar dutelako.

## 35. koadroa

**Batez besteko errentagarritasun haztatua, Enpleguko  
Aurreikuspen Planetako orientazio inbertitzailearen batez  
besteko errentagarritasuna**

Errenta aldakorra	22,24%
Errenta aldakor mistoa	14,25%
Beste batzuk	9,69%
Errenta finko mistoa	9,55%
Epe luzerako errenta finkoa	5,54%
Epe laburrerako errenta finkoa	4,63%
<b>Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira</b>	<b>9,27%</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

### 4.3. Orientazio inbertitzailea, Aurreikuspen Planetako bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, inbertsio motak desberdina izan behar du bazkideen adinaren arabera: zenbat eta gazteagoa izan bazkidea, orduan eta arriskutsuagoa inbertsioa, eta bazkidea zenbat eta helduagoa izan, inbertsioa orduan eta seguruagoa. Erretiratzeko adina hurbildu ahala, inbertsioek seguruagoak izan behar dute, nahiz eta horren ordaina errentagarritasun handiagoko aukerak galtzea izan, zeren eta arriskuak kapital metatu guztiari eragiten baitio; gaztetan, aldiz, metatzeko urte asko edukita eta arriskatzeko kapitala txikiagoa izanda, errentagarritasunik handiena bilatzeak izan behar du irizpide nagusia inbertitzeko garaian.

## 36. koadroa

Bazkideen adin-tarteak	Orientazio inbertitzailea							
	Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskuzkoa		Beste batzuk	Guztira
	Bermatuak	Epe laburrerako errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra		
< 36 urte	Kop. <b>1.695</b>	<b>7.276</b>	<b>4.248</b>	<b>94.437</b>	<b>9.880</b>	<b>3.803</b>	<b>1.383</b>	<b>122.722</b>
	% 1,38%	5,93%	3,46%	76,95%	8,05%	3,10%	1,13%	100%
36-45 urte	Kop. <b>10.604</b>	<b>29.347</b>	<b>15.046</b>	<b>208.445</b>	<b>23.138</b>	<b>9.774</b>	<b>6.588</b>	<b>302.942</b>
	% 3,50%	9,69%	4,97%	68,81%	7,64%	3,23%	2,17%	100%
46-55 urte	Kop. <b>29.093</b>	<b>36.704</b>	<b>18.816</b>	<b>255.322</b>	<b>33.700</b>	<b>13.125</b>	<b>11.942</b>	<b>398.702</b>
	% 27,42%	34,59%	17,73%	240,62%	31,76%	12,37%	11,25%	100%
56-65 urte	Kop. <b>29.866</b>	<b>34.708</b>	<b>17.415</b>	<b>214.545</b>	<b>21.868</b>	<b>10.503</b>	<b>10.790</b>	<b>339.695</b>
	% 8,79%	10,22%	5,13%	63,16%	6,44%	3,09%	3,18%	100%
> 65 urte	Kop. <b>7.691</b>	<b>23.632</b>	<b>11.024</b>	<b>87.681</b>	<b>9.993</b>	<b>4.870</b>	<b>5.513</b>	<b>150.404</b>
	% 5,11%	15,71%	7,33%	58,30%	6,64%	3,24%	3,67%	100%
<b>Guztira</b>	Kop. <b>78.949</b>	<b>131.667</b>	<b>66.549</b>	<b>860.430</b>	<b>98.579</b>	<b>42.075</b>	<b>36.216</b>	<b>1.314.465</b>
	% 6,01%	10,02%	5,06%	65,46%	7,50%	3,20%	2,76%	100%

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Irizpide hori, oro har, bete egiten da Aurreikuspen Planak dituzten BGAEetako bazkideen kasuan. Horixe ikusten da, hain zuzen, 36. koadroari erreparatuz gero. Kontserbadoretzat hartu dugun inbertsioa (batik bat, epe laburrerako errenta finkoan eta bermatuetan



egindakoak) hazi egiten da, oro har, bazkidearen adinak gora egin ahala. Epe laburrerako errenta finkoan, 36 urte baino gutxiago dituzten bazkideek funtsen % 6 dituzte inbertituta eta ehuneko hori % 16ra igotzen da, berriz, 65 urtetik gorakoan artean. Portaera bera dute 65 urtera arte bermatutako Planek.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioek profil egokia dutenik errentagarritasun handiago bat lortzeko asmoz beren gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa 36 urte baino gutxiago dituzten bazkideek beren ondarearen % 7 baino zertxobait gehiago inbertsio kontserbadoreetan inbertitzea, eta ehuneko hori % 88raino iristea errenta aldakorra % 30eraino iristen ez den tokian inbertitutakoa kontuan hartzen badugu –hau da, arrisku ertaineko inbertsioak–. Ildo horretan, 56-65 urteko adin-tartea duen biztanleriaren portaera inbertitzailea antzekoa da. Azken kolektibo horrek zorro kontserbadoreetan dauka inbertituta % 19a, 36 urtetik beherako pertsonen kolektiboak inbertituta daukana baino ehuneko handiagoa. Baina, ehunekoa ia antzekoa da, % 87, aktiboetan inbertitutakoa sartzen badugu, kasu horretan errenta aldakorra ez baita % 30era iristen.

Biztanleria gazteenaren funts-esleipen hori ez da eraginkorra, ez delako ia batere bereizten gazteen eta helduen orientazio inbertitzailea. Zehazki, 36 urtetik beherako bazkideen % 3k soilik hautatu ditu arrisku handieneko Aurreikuspen Planak, non errenta aldakorrak aktiboen % 75etik gorako pisua duen.

Horri dagokionez, deigarria da, aztertutako adin-tarteen barruan, 56-65 urteko pertsonen kolektiboak ia bikoiztea kolektibo gazteenak arriskutsutzat jo dituen zorroetan inbertitu duena. Ikuspegi inbertitzailetik koherentea izan daitekeena koherentziarik gabea da gazteen kasuan; izan ere, geroan behar besteko pentsioa izateko, nahikoa kapital metatu behar da aurrena, eta gazteek, litekeena da azken kapital hori lortzeko ezinbestekoa duten errentagarritasun bati uko egitea horrela, portaera kontserbadore horrekin inbertitzean.

Egoera horri konponbide bat eman nahi dio bizi-zikloaren inbertsio-estrategien erregulazioak, zeina BGAEei aplikatu beharreko araudian baitago jaso. Esangura horretan, zehaztutako ekarpenen Aurreikuspen Planak artikulatzen dituzten BGAEek, banakako modalitatekoek, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, bizi-zikloaren inbertsio-estrategia bat eskaini behar diete erakundeko bazkideei, gutxienez hiru Aurreikuspen Planekoa eta gehienez bostekoa, arrisku- eta etekin-konbinazio bat baino gehiago dituztenak, kontuan izanda bazkideen adina, inbertsio-estrategia eta bazkide bakoitzaren egoera.

Azkenik, nabarmentzekoa da bazkideen % 65ek, adina alde batera utzita, errenta finko mistoko Planen alde egiten dutela, zeinetan errenta aldakorreko aktiboetan inbertitutakoa % 30era iristen ez den. Errenta finko mistoko Planak aukeratzen dituzten bazkideen ehunekoa % 77 da 36 urtetik beherakoetan.

Banakako modalitatearen BGAEek 86 aurreikuspen-plan zituzten esleituta, 2019an, bizi-zikloaren estrategiarako, banakako aurreikuspen-plan guztien % 30aren (288) eta banakako planei dagozkien ondare osoaren % 58aren baliokideak.

Hauxe da bizi-zikloaren strategiari atxikitako planen orientazio inbertitzailearen araberako banaketa: Errenta aldakor mistoa **31**, Errenta finko mistoa **26**, Errenta



aldakorra **15**, Errenta finkoa, epe laburrera **11** eta Errenta finkoa, epe luzera **3** (Guztira **86**).

#### 4.4. Orientazio inbertitzailea, Enplegu Planen bazkideen adinaren arabera

##### 37. koadroa

Bazkideen adin-tarteak		Orientazio inbertitzailea						Beste batzuk	Guztira
		Kontserbadorea	Arrisku ertaina		Arriskuzkoa				
		Epe laburrerako errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra			
< 36 urte	Kop. %	<b>284</b> 0,39%	<b>304</b> 0,42%	<b>71.356</b> 97,79%	<b>24</b> 0,03%	<b>19</b> 0,03%	<b>983</b> 1,35%	<b>72.970</b> 100%	
36-45 urte	Kop. %	<b>994</b> 0,72%	<b>2.214</b> 1,61%	<b>128.577</b> 93,70%	<b>155</b> 0,11%	<b>159</b> 0,12%	<b>5.117</b> 3,73%	<b>137.216</b> 100%	
46-55 urte	Kop. %	<b>1.020</b> 0,69%	<b>1.387</b> 0,94%	<b>134.821</b> 91,27%	<b>258</b> 0,17%	<b>163</b> 0,11%	<b>10.073</b> 6,82%	<b>147.722</b> 100%	
56-65 urte	Kop. %	<b>1.583</b> 1,49%	<b>1.506</b> 1,42%	<b>93.483</b> 88,10%	<b>170</b> 0,16%	<b>110</b> 0,10%	<b>9.256</b> 8,72%	<b>106.108</b> 100%	
> 65 urte	Kop. %	<b>1.160</b> 3,69%	<b>1.549</b> 4,93%	<b>23.816</b> 75,79%	<b>35</b> 0,11%	<b>26</b> 0,08%	<b>4.838</b> 15,40%	<b>31.424</b> 100%	
<b>Guztira</b>	Kop. %	<b>5.041</b> 1,02%	<b>6.960</b> 1,40%	<b>452.053</b> 91,24%	<b>642</b> 0,13%	<b>477</b> 0,10%	<b>30.267</b> 6,11%	<b>495.440</b> 100%	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enplegu Planen kasuan, kolektiboaren % 91 errenta finko mistoko orientazio inbertitzailearen barnean sartuta dago, eta errenta aldakorra eta errenta aldakor mistoa aukeratzen dituen kolektiboaren ehunekoa ez da % 1era iristen.

#### 4.5. Orientazio inbertitzailea, Banakako Planetako bazkideen adinaren arabera

##### 38. koadroa

Bazkideen adin-tarteak	Orientazio inbertitzailea							
	Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskuzkoa		Beste batzuk	Guztira
	Bermatuak	Epe laburrerako errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra		
< 36 urte	Kop. 1.695	6.992	3.944	23.074	9.851	3.784	400	49.740
	% 3,41%	14,06%	7,93%	46,39%	19,80%	7,61%	0,80%	100%
36-45 urte	Kop. 10.604	28.352	12.831	79.621	22.862	9.615	1.471	165.356
	% 6,41%	17,15%	7,76%	48,15%	13,83%	5,81%	0,89%	100%
46-55 urte	Kop. 29.093	35.683	17.422	120.185	33.188	12.962	1.869	250.402
	% 11,62%	14,25%	6,96%	48,00%	13,25%	5,18%	0,75%	100%
56-65 urte	Kop. 29.866	33.116	15.902	120.929	21.526	10.393	1.534	233.266
	% 12,80%	14,20%	6,82%	51,84%	9,23%	4,46%	0,66%	100%
> 65 urte	Kop. 7.691	22.460	9.467	63.786	9.831	4.844	675	118.754
	% 6,48%	18,91%	7,97%	53,71%	8,28%	4,08%	0,57%	100%
<b>Guztira</b>	Kop. <b>78.949</b>	<b>126.603</b>	<b>59.566</b>	<b>407.595</b>	<b>97.258</b>	<b>41.598</b>	<b>5.949</b>	<b>817.518</b>
	% 9,66%	15,49%	7,29%	49,86%	11,90%	5,09%	0,73%	100%

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Bestalde, Banakako Planetan, bazkideen % 25ek kontserbadoretzat hartzen diren orientazio inbertitzaileak aukeratzen dituzte, % 50 errenta finko mistoko orientazio inbertitzailean sartuta dago, eta errenta aldakorra eta errenta aldakor mistoa aukeratzen dituen ehunekoa ez da % 17ra iristen.

#### 4.6. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen inbertsioen egitura

##### 39. koadroa

Finantza-aktiboak	2018		2019	
Zorra adierazten duten balioak	12.721.515.236 €	51,24%	13.193.524.910 €	49,30%
Ondare-tresnak	9.231.759.420 €	37,19%	11.121.647.348 €	41,56%
Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	2.359.246.202 €	9,50%	1.936.841.160 €	7,24%
Gainerako aktiboak	513.497.840 €	2,07%	508.077.260 €	1,90%
<b>Guztira</b>	<b>24.826.018.697 €</b>	<b>100,00%</b>	<b>26.760.090.678 €</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen funtsen % 50 zorra adierazten duten balioetan inbertituta dago. 2019. urtean, nabarmendu behar da Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek ondare-tresnetan egindako inbertsioen ehunekoa igo egin zela eta horren arrazoia dela, Aurreikuspen Planetan errentagarritasun gehigarriak bilatzeko asmoz, zorra adierazten duten balioetan eta dirutan, eta beste aktibo likido baliokide batzuetan egindako inbertsioetan izandako ehunekoen jaitsierak direla.

Ondare-tresnak kontzeptuaren barnean, honako hauek sartzen dira: errenta aldakorra, Inbertsio kolektiboko Erakundeak (IKE), arrisku-kapitala eta kapital-partaidetzak.



Horregatik, ondare-tresnetan egindako inbertsioa ezin da errenta aldakorra deitzen zaion horretan egindako inbertsioarekin parekatu.

#### 4.7. Enpleguko BGAEen inbertsioen egitura

##### 40. koadroa

Finantza-aktiboak	2018		2019	
Zorra adierazten duten balioak	5.484.589.623 €	40,90%	5.706.207.026 €	39,27%
Ondare-tresnak	6.703.503.680 €	49,99%	7.854.108.339 €	54,06%
Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	807.489.097 €	6,02%	595.579.071 €	4,10%
Gainerako aktiboak	413.898.596 €	3,09%	373.361.909 €	2,57%
<b>Guztira</b>	<b>13.409.480.996 €</b>	<b>100,00%</b>	<b>14.529.256.346 €</b>	<b>100,00%</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enpleguko BGAEetan, zorra adierazten duten balioetan egindako inbertsioen pisua % 40koa da. Enpleguko BGAEek ondare-tresnetan egindako inbertsioek izan duten igoera portzentualaren arrazoia da dirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan egindako inbertsioen beherakada portzentuala.





## 4.8. Banakako BGAEen inbertsioen egitura

### 41. koadroa

Finantza-aktiboak	2018		2019	
Zorra adierazten duten balioak	7.232.630.193 €	63,47%	7.398.620.938 €	60,60%
Ondare-tresnak	2.513.275.546 €	22,06%	3.233.908.014 €	26,49%
Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	1.549.888.106 €	13,60%	1.432.989.741 €	11,74%
Gainerako aktiboak	99.515.331 €	0,87%	142.469.124 €	1,17%
<b>Guztira</b>	<b>11.395.309.177 €</b>	<b>100,00%</b>	<b>12.207.987.817 €</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Banakako BGAEetan, zorra adierazten duten balioetan egindako inbertsioen pisua % 61ekoa da. Aurreikuspen Planak dituzten BGAE guztien kasuan gertatzen zen bezala, Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek ondare-tresnetan egindako inbertsioek izan duten igoera portzentualaren arrazoia da zorra adierazten duten balioetan eta dirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan egindako inbertsioen beherakada portzentuala. Hori esanda, aipatu behar da Enpleguko BGAEek Banakako BGAEek baino askoz ere inbertsio gehiago egin dituztela ondare-tresnetan, azken erakunde horiek zorra adierazten duten balioetan inbertitzen baitute nagusiki.

## 4.9. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek EAEn egiten duten inbertsioa

### 42. koadroa

Inbertsioa EAE - BGAEak, guztira	2.211.647.834 €
Hornikuntza Teknikoak, guztira - BGAEak, guztira	25.578.259.331 €
	<b>8,65%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek prestazioengatiko konpromisoerantzuteko eraturako funtsen % 8,65 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egoitza soziala duten jaulkitzaileen aktiboetan inbertituta daude.

### 4.9.1. Enpleguko BGAEek EAEn egiten duten inbertsioa

### 43. koadroa

Inbertsioa EAE - Enpleguko BGAEak	1.577.743.617 €
Hornikuntza Teknikoak, guztira - Enpleguko BGAEak	13.440.028.591 €
	<b>11,74%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen kasuan, ehuneko hori % 11,74 da, eta ehuneko hori % 5,22ra jaisten da Banakako BGAEetan, koadro honetan ikusten den bezala.



#### 4.9.2. Banakako Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek EAEn egiten duten inbertsioa

##### 44. koadroa

Inbertsioa EAE - Banakako BGAEak	633.904.217 €
Hornikuntza Teknikoak, guztira - Banakako BGAEak	12.138.230.740 €
	5,22%

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

#### 4.10. Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek EAEn zor publikoan egiten duten inbertsioa

##### 45. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - BGAEak, guztira	669.327.164 €
Hornikuntza Teknikoak, guztira - BGAEak, guztira	25.578.259.331 €
	2,62%

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek prestazioengatik konpromisoei erantzuteko eraturako funtsen % 3 inguru Eusko Jaurlaritzaren Zor Publikoan inbertituta daude.

##### 46. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - Enpleguko BGAEak	537.817.603 €
Hornikuntza Teknikoak, guztira - Enpleguko BGAEak	13.440.028.591 €
	4,00%

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enpleguko Aurreikuspen Planak dituzten BGAEek % 4 daukate inbertituta, eta ehuneko hori % 1era jaisten da Banakako BGAEetan, koadro honetan ikusten den bezala.

##### 47. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - Banakako BGAEak	131.509.560 €
Hornikuntza Teknikoak, guztira - Banakako BGAEak	12.138.230.740 €
	1,08%

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*



#### 4.11. BGAEek inbertitzen duten EAeko enpresa nagusiak

##### 48. koadroa

EAE-KO ENPRESAK	2018		2019	
EUSKO JAURLARITZA	913.965.253 €	37,56%	669.327.164 €	30,26%
BBVA	428.788.398 €	17,62%	497.555.362 €	22,50%
KUTXABANK	477.945.585 €	19,64%	357.881.724 €	16,18%
KUTXABANK BIZI-ASEGURUA ETA PENTSIOAK	140.655.439 €	5,78%	136.284.583 €	6,16%
LABORAL KUTXA	127.770.912 €	5,25%	131.861.859 €	5,96%
ORZAREN BITARTEZ EGINDAKO INBERTSIOAK	97.867.310 €	4,02%	104.886.533 €	4,74%
IBERDROLA	95.670.156 €	3,93%	86.268.576 €	3,90%
CIE AUTOMOTIVE	23.814.381 €	0,98%	37.103.658 €	1,68%
TUBACEX	27.830.744 €	1,14%	34.782.505 €	1,57%
VIDRALA	1.301.423 €	0,05%	19.356.911 €	0,88%
EAE-KO GAINERAKO ENPRESAK	97.792.417 €	4,02%	136.338.959 €	6,16%
<b>Guztira</b>	<b>2.433.402.019 €</b>	<b>100,00%</b>	<b>2.211.647.834 €</b>	<b>100,00%</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

#### 4.12. Administrazio-gastuak

BGAEek eskuratutako errentagarritasuna, inbertsio-estrategiaren bidez eskuratutako errentagarritasunaren araberakoa izateaz gain, administrazio-gastuen kontzeptuan aplikatzen den ehunekoaren mendekoa da. Inbertsio-estrategia bera izan arren, gastu handiago batzuek oso eragin kaltegarria dute epe luzera metatutako kapitalean.

Horrenbestez, neurrizko gastuak izatea, inbertsio-estrategia egoki batekin batera, hala finantzaren ikuspegitik nola bizi-zikloaren ikuspegitik (nahiko ekarpen egiten hasita adin goiztiarretan), beste faktore erabakigarria da kapital egokiak lortzeko eta nahikoa den pentsio osagarri bat atera dadin hortik.

2019an, Enplegua modalitatearen eta Banakako modalitatearen artean gastu-aldea handia izan da. Orain emango dugun datua, administrazio-gastuen batez besteko ehunekoarena, modalitate bakoitzeko Plan guztien administrazio-gastu guztien ehunekoaren batezbesteko aritmetikoaren emaitza da. Aurrekoarekin bat etorritz, Banakako BGAEen administrazio-gastuak % 1,22koak izan ziren ondarearen gainean.

Bestalde, Enplegu Planen administrazio-gastuen batez bestekoa, zehaztutako ekarpenen Planak eta zehaztutako prestazioko Planak kontuan hartuta, % 0,86 izan zen. Horrek esan nahi du Banakako BGAEetan administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa % 42 handiagoa dela Enpleguko BGAEek gastu moduan ezarritakoa baino.

Enpleguko 4 BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoarekin eginez gero alderaketa (Enpleguko BGAEen ondare guztiaren % 75 dira sektorialak eta modalitate horretako bazkideen % 92 biltzen dituzte), kontuan izanda horiek % 0,41eko administrazio-gastuak ezartzen dituztela, ondorioa honako hau da: Banakako BGAEek administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa hiru aldiz handiagoa da Enpleguko 4 BGAE sektorialek batez beste ezarritakoa baino.



Ildo horretatik, kudeaketa kolektiboa duten Enpleguko BGAEek abantaila argiak dituzte Banakakoekin alderatuz gero. Eta abantaila hori oso garrantzitsua izan daiteke metatutako ondarearen edo jasotzeko eskubidea ematen duen pentsioaren balioaren azken kalkulua egiterakoan.



## 5. ASEGURU-JARDUERARIK EGITEN EZ DUTEN ARAUBIDE BEREZIKO BGAE BEREIZI GABEAK

2020ko urtarrilaren 15ean, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Agindua –aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen duena– argitaratu zen.

Erakunde horiek bazkidearen ondasunetan izaten diren kalte edota galerak estal ditzakete, dela etxebizitzan, etxeko ostilamenduan, lan-tresnetan, ganaduan, uztetan, basoetan, barku-ontzietan edo bere lan-jarduerari edo ogibideari lotutako beste edozein ondasunetan, baita ehorzketaren ondoriozko gastuak eta zerbitzuak ere.

Bazkideek elkarri laguntzea izan behar du erakunde horien helburu bakarra, eta irabazi-asmorik ez izatea, bere oinarritzko printzipioetako bat; beraz, Gizarte Aurreikuspeneko mutualitatea izango da erakunde horien osagai bereizle eta funtsezkoa, bere helburua sozialean eta estatutuen erregulazioan ez baita elementu aseguratzaile bakar bat ere egongo.

Aseguru-jarduerarik gabeko Erakundea izateko, Erakundearen Batzar Orokorraren aurretiazko adostasuna behar da, eta estatutuak aldatu egin beharko dira.

COVID-19ak eragindako krisi sanitarioko egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu izanak eragin du zenbait erakundek beren batzar orokorrak egiteko aukerarik ez izatea erabakiak hartzeko, zehazki, aseguru-jarduera egiten ez duten Erregimen Bereziko BGAE Bereizi Gabeak izateko. Era berean, ezin izan dituzte urteko kontuak onartu.

2020ko ekitaldi honetan, eta salbuespen gisa, Finantza Politikako Zuzendaritzak aldatu egin ditu aseguru-jarduerarik ez duten BGAE bereizi gabe horiek urteko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa (EKD) aurkezteko epeak, dokumentazioa betetzeko denbora luzatu da, baita izaera hori hartzea erabakitzen duten BGAE guztiak 2019ko datuei dagokien EKDa onartzen dituzten kontuekin bete ahal izateko epea ere.

Arrazoi horrengatik, Aurreikuspen Planik gabeko BGAEei buruzko 2019ko datu guztiak ez daude eskuragarri. Horrengatik, 2018ko datuak erantsi ditugu ondoren.

### 49. koadroa

BGAE	Modalitatea	Erakunde kopurua	Bazkide kopurua	Balantze Zifra (€)	Kuotak (€)	Prestazioak (€)
<b>Aurreikuspen Planik gabe</b>	Heriotzak	30	99.983	13.229.247	4.250.468	2.325.083
	Suteak	1	4.171	4.036.016	1.348.113	801.594
	Beste batzuk	12	9.623	6.559.412	2.655.776	2.583.290
<b>Guztira</b>		<b>43</b>	<b>113.777</b>	<b>23.824.675</b>	<b>8.254.356</b>	<b>5.709.967</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*